

# Ezpalak

JON TORNER

## Hilaren 12an jarriko dira salgai Bilbao Live jaialdirako bonuak

BILBAO BBK LIVE jaialdia ([www.bilbaobbklive.com](http://www.bilbaobbklive.com)) 2009ko uztailaren 9tik 11ra egingo da Kobetamendin. Denbora asko falta da oraindik, baina antolatzaileek jaialdian parte hartuko duen talde baten izena ezagutarazi dute jada: Depeche Mode izango da kartel buruetako bat. Bestalde, hiru egunetarako sarrera azaroaren 12an salgai jarriko dela iragarri dute. 100 eurotan erosi ahal izango da BBKren kutzazainetan, 944 310 310 telefono zenbakian eta [www.bbk.es](http://www.bbk.es) webgunean.



## Pello Añorgak irabazi du haur eta gazte literaturako Euskadi Saria

JENIO GAIZTOA (Aizkorri) lanari esker irabazi du Pello Añorga idazle oiartzuarrak haur eta gazte literaturako Euskadi Saria. Egun pasa hondartzara joan den neskatzaoren istorioa kontatzen du liburua. Jokin Mitxelenak egin ditu ilustrazioak. Bestalde, gaztelaniazko literatura arloko saria Manuel Leginetxek irabazi du, *El club de los faltos de cariño* eleberriarekin. Iaz bezala, Euskadi Sarien inguruan eztabaida sortu da berriro. Aste honetan itzulpengintzako eta euskarazko literatura arloko sariak emango dituzte, eta Juan Luis Zabalak *Berrian* idatzitako artikulu batean jakinarazi duenez, Eider Rodriguezek, Uxue Alberdik eta Koldo Izagirrek uko egin diote finalista izateari, sariketa-aren irizpide eta antolaketarekin ados ez daudelako.

**Cy Twombly** artistaren (Virginia, AEB, 1928) ehun pintura, marrazki eta eskultura izango dira ikusgai 2009ko otsailaren 15a arte Bilboko Guggenheim museoan. Gaur egungo arte munduan eragin handiko artista da Twombly. Historia, poesia, mitologia klasikoa eta Mediterraneo aldeko paisaia dira artistaren inspirazio iturri.

**Doris Lessing** Nobel saridunaren *Belarra kantari* nobela (Elkar) "gogor" eta "ederra" euskaratu du Koro Navarrok. Istorioa Hegoafrikan kokaturik dago eta heriotza, arrazakeria eta matxismoa gordin islatzen ditu. Bestalde, Alberdania argitaletxeak Nat-hacha Appanah idazlearen *Le dernier frère* nobela plazaratu du euskaraz, *Azken anaia* izenburupean. Afrikako kartzela batean preso dagoen mutikoaren eta hango zaindari baten semearen arteko harremana du ardatz. Mikel Garmendiak euskaratu du.

## Francisco Pomaresek

eta Bartolomeo Pinellik 1816an elkarrekin egindako grabatuak bildu dituzte Arabako Arte Ederren Museoan. Multzo osoa sei estanpitan zatitutako Iberiar penintsulako mapa batek eta Independentzia Gerrako gertakariak kontatzen dituzten hogeita hamahiru eszenak osatzen dute.



**Fernando Garcia de Cortazar** historialari bilbotarrak irabazi du Espainiako Historiako Sari Nazionala. *Historia de España desde el Arte* liburuarri (Planeta) esker irabazi du 20.000 euroko balioa duen saria. Deustuko Unibertsitateko Historia Garaikideko katedraduna eta Vocento Fundazioko zuzendaria da Garcia de Cortazar.

● **Josetxo Silguero Sigma Project taldeko saxofonistak *Garan*:** «Gure politikarientzat kultura masari zuzendutako zerbaite da: Guggenheim, Tabakalera, jazz eta zinema jaialdiak... Hori ez da kultura babes-tea, turistikoki erakargarriak diren gauzak sortzea baizik. Kulturatik berehalako etekin komertziala ateratzea bilatzen da. Hori kontraesana da, horrela ezin baita publiko hezia eduki. Ez du ezertarako balio jazz jaialdira munduan famatua den pertsona ekartzea eta urte gutzian zehar talde txikiak laguntzak ukatzea».

● **Kepa Ibarra Gaitzerdi antzerki konpainiako zuzendariak *Aldaketa Hamasei* aldizkarian:** «Bilbo gutzia izan da guretzat. Abangoardistak izatera eta tradizioarekin batere zerikusirik ez duten gauzak egitera behartu gaitu. Hiri gris eta kontraesankorra da. Eta guk giro horretan txertatu behar izan dugu gure burua. Horretarako beltza erabili dugu sarritan, baita maleta ere, bidaiari petoaren ikurra, bilbotarrak joan-etorrian aritzen baitira beti. Kanpotik etorri direnen ikur ere badira maletak».

● **Jose Angel Irigarai idazlea bertsolaritzaz *Berrian*:** «Lehia beharrezkoa da, lehiari esker etsipenetik ateratzen gara. Baina, txapelketa saltzeko, ez dezagun bertsolaritza saldu (...) Txapelketa nahitaezkoa da, arauak, tentsioa... baina orgiastikoak liritekeen jardunaldiak eta saioak antolatu beharko liriteke. Oxigenoa hartzeko, bakarrik norgehiagokara ez mugatzeko. Lehiakortasunaren tamaina gorde behar du bertsolaritzak (...) Beste arte sailek krisialdi sakonak izan dituzte, baina bertsolaritza kalterik gabe atera da krisietatik».

# Abarrak

UNAI BREA

## Lurraren beroketa liberalismoaren ikuspuntutik

NOBEDADEEN xerka zabiltzatenok, segi hurrengo orrialdera. *State of fear* (Beldur egoera) nobela ez da preseski labetik atera berria –2004an argitaratu zuten–, baina haren gaia egunerokotasunaren ardatzetako bat da, eta luzaroan izango: beroketa globala, aspalditxo gurean instalatutako kezka nagusietakoa, nola garai batean gerra nuklearraren mehatxua.

Michael Crichton hitza dolar bihurtzeko abilidadea duen idazle horietakoa da. Berak sortu zituen *Jurassic Park*-eko mundua eta *ER* (gaztelaniazko *Urgencias*) telesaila, besteak beste. *State of fear*-ekin, bere alea ipini nahi izan zuen Lurraren beroketari buruzko eztabaidan. Nobela izan arren, saiakeratzat hartua izan da, egileak bibliografia mardula aipatzen duelako eta bere iritzia argitzen duen azken solasa gehitu diolako narrazioari. Laburbilduz, Crichtonek ezbaian jarri nahi zuen Lurraren beroketaren inguruko kontsentsu zientifiko gero eta zabalagoa. Konparazio baterako, itsas mailaren igoerari buruzko datu batzuk gezurtatzen dira nobelan. Egileak fikzioa dela azpimarratu du, baina...

Liburua liberalismo amorratuaren kutun bilakatu zen hasieratik, Crichtonek, bere adierazpen publikoetan, alde bateko zein besteko muturreko jarrerak salatu arren. Sartu “liberal” hitza Interneteko bilatzaile batean, eta hantxe duzu webgune zerrenda oparoa: klima aldaketa gizakiak eragiten duela ukatuko dizute behin eta berriz, non ez duten besterik klima aldaketa bera ukatzen. Crichtonen artikulu bat baino gehiago aurkituko duzu itsaso horietan nabiatur gero. Hark ez ditu ezbaian jartzen ez beroketa ez gizakiaren eragina, baina froga argirik eduki gabe gehiegizko katastrofismoa zabaldu dela uste du. Argentinako [www.axxon.com](http://www.axxon.com) atariaren arabera, *State of fear* ezinbesteko erreferentzia bihurtu zen Bush administrazioak beroketa globalari buruz erabilitako diskurtsoan. Hara, nobelaren boterea.



FINALA

Azaroaren 15ean,  
Donibane Loizunean,  
Jai Alai pilotalekuan  
17:00

Bazkaria: Lekuan berean, "Ereintabil"  
Donibaneko Ikastolako guraso elkarteak  
bazkaltzeko aukera emanen du.

Erreserbak egiteko:

05 59 54 07 86 (iparraldetik)  
00 33 559 54 07 86 (hegoaldetik)

Bertsulari  
Xapelketa  
2004

# Bertsu

Zatoz  
bertsularitzaren  
festara!